


KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2009ko martxoaren 06a / 256. zenbakia / 20. urtea

- HERRIKO KONTUAK **Hauteskundeak** 05
- KIROLA **Areto futbola** 08
- AIAKO BERRI **Idi dema** 11

- IRITZIA **Eñaut Martí** 18
- MOILA BAZTERRETIK **Jon Agirresarobe** 19
- HERRITARRA **Juan Antonio Urbeltz** 25



Xaltxerak: emakumea laguntzeko prest

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna lortzeko helburuarekin sortu zen iaz talde bat Orion: Orioko Xaltxerak.

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

KARKARA

943 83 15 27

ALDIZKARIAN

Dorronoro Denda

1961etik zure etxean

AUKERA HANDIAGOA
FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37

 **AMILIBIA**
ONTZIO LAK, S. L.

karol portuetan proiektu
eta instalazioak

guztiak elkarrekin
araztu oteak

Obisktagarria auzoa, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

Gabon

TABERNA

plater berrak eta pintxoak

Tfnos: 943 83 06 09

ERROTA



- Eztei ospakizunak
- Banketeak
- Karta zahala
- Egunko menua (lanegunetan)
- Oheak

Tfnos: 943 83 54 65

Carmen eta Txomin
ARRANDECIAR



943 83 05 37 / 943 83 27 47

azkue

Tf: 943 13 04 38



ALTXERRI

Karta eraberrina

Asteburuan, eguerdi eta gutxian,
menu berriak

943830762

uranga
autozerbitzua



Aliprox

Euzko Gudar Falea 13-15
OND
943 83 38 75

A&E
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibañ Ondo pl. 8 Orio

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

 **ACTIVA**  **Akobe**

ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Albizu

Arrieta, 6 - Tel. 943 83 12 44
URUPY ORO

edurregia

ANTILLA
jalelaxa

Alustiza kalea 2 - TEL. 943 83 29 09

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Mikel Aranzabal, Pat Cowie,
Miren Etxeberria, Eli Lasa eta
Jabier Zabaleta

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze

Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta

Ale honetako laguntzaileak

Eñaut Marti, Garbiñe Ezkerra,
Goretti Subinas, Eli Uria eta
Ritxi Uzkudun

Diseinua

KARKARA taldea eta Goio Arana

Banatzailleak

Ane Etxabe eta
Ander Mujika (Orio)
Irene Aldai (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua

SS-346/90

ISSN 1132-1105

Tirada 3.100 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.

KARKARAn argitaratutakoa berrieman
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria alpatzen bada.

Interneteko kontube

RITXI UZKUDUN (ERRIKOTXIA BERTSOZALEEN ELKARTEA)

1

Feizbuk, tuenti, blogetayutube
bildu, fotolog, sustatu,
zer ote diren ta zertarako
ez bazera enteratu;
ordenagailu baten aurrean
klikatu kuxkuxeatu,
eta artean ez badakizu
seme-alabei galdetu.

2

Bideoak igo eta kontatu
atzo gaueko parranda,
halakorekin ta halakotan
litro pare bat edanda;
Baina pantallan egon liteke
zure lagun minez landa,
zure bizitza kontrolatzen dun
makina bat de miranda.

3

Lehen zeozer bilatzeko zen
orain zu zeu aurkitzeko,
programa eder asko baitago
dakizuna esateko,
baita aukera galanta ere
jakintza konpartitzeko,
ehun ezazu zeure sarea
sarean ez erortzeko.



MARI TEKLA

PUBLIZITATE PREZIOAK

IRAGARKIA ALERO JARRITA

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Emakumeen iritzirik gabeko diagnostia

2005ko Berdintasunaren Legeak udalerriak behartzen ditu diagnostikoak egin eta, ondoren, planak prestatzera. Horrelaxe sentitu da Orioko Udala: behartua! Emakumeen iritzirik jaso gabe diagnostiko bat korrika eta presa-ka egin eta dirulaguntza epea baino lehen amaitzera behartua sentitu baita. Obligazioz, azkar eta galdetu gabe gauzak ezin dira txukun egin, ordea.

Orioko zenbait emakume haserre gaude diagnostia egiteko erabili den prozedurarekin. Arduragabekeria jokatu duela uste dugu Udalak eta, berriz ere, emakumeok pairatzen dugun errealitate gordinari bizkar eman diola.

Gizon eta emakumeon arteko ezberdintasunak identifikatzealagarrantzitsua eta beharrezkoa da, eta, horretarako, ezinbestekoa da diagnostiko on bat egitea. Zein errealitate bizi dute Orioko emakumeek? Hori jakiteko nahitaezkoa da emakumeoi galdetzea (baita gizona ere), berekin hitz egitea, hainbat gai eta eremuren inguruan lan taldeak sortu eta eztabaidatzea, galdetegiak herritarkantitate esanguratsu bati pasatzea eta ateratako ondorioak berriz ere emakumeekin eta, noski, herritarrekin kontrastatzea. Beraz, diagnosi erreal bat egiteak denbora, dirua, metodo egoki bat eta, batez ere, herritarren partehartzea eskatzen ditu.

Egoera horren aurrean, batetik Udalarri erantzukizuna eskatu nahi diogu benetako diagnostiko bat egiteko konpromisoa har dezan. Bestetik, ondoren egingo duen plana, kaxoian gordeta utzi beharrean, herriko emakumeekin batera eztabaidatutako berdintasun plana izatea nahi dugu. Enpresa batek gestio-lana egin badezake ere, herriko emakumeon partehartzerik gabe ez baitauka zentzurik ezertan hasteak.

Horregatik, zertarako egin diagnostia eta ondorengo plana guri ezer galdetu gabe? Ez al da zurikeria egin duzuen?

ORIOKO XALTZERAK

Ikastolak mereziak ditu subentzioak (I)

Herritarra ezizenarekin sinatutako idatzi batek bidea ematen dit ikastoletaz hitz egiteko kontzeptu batzuk argitu nahian:

Duela berrogeitaka urte, pertsona batzuk pentsatu zuten, euskarak, iraun zezan, eskola irabazi behar zuela; eta ez pentsatu bakarrik, baita lanari gogor ekin ere. Baziren orduan ere eskola publikoak baina ikastola sortu zuten. Ordundik ona, milaka pertsona aritu dira *gratis et amore*, hau da, dohako lanean, ikastolen mugimenduan sartuta. Guzti horiek dirurik ez dute jaso, baina bai dirua eta lana eskaini, gizartetik gizarterako sortu den eskola indartzeko ahaleginetan.

Ikastolak asko eskaini dio eta eskaintzen ari da gaur egun ere euskal irakaskuntzari. Aintzindari izan da eta da mugimendu pedagogiko berritzaile guztietan. Lan ikaragarria egiten du testugintzan, materialgintzan eta ikerketetan. Gidari izan da elea-niztasunean, curriculumean eta proiektu berritzaile guztietan. Eta ez ikastolakide-entzat bakarrik, baizik eta euskal eskola guztientzat ere. Ikastolan sortutako liburuak eta materialak ere erabiltzen baitituzte.

Euskara eta euskal kulturaren historia idatzi nahi duen edonork ezingo luke historia hori idatzi, ikastola eta ikastolaren inguruan ibili diren pertsonak kontuan ez baditu hartzen.

Franco bizirik zegoela, sasi demokraziaren hasieran, Madrilen negoziatzen genituen baimenak eta subentzioak. Villar Palasi eta Otero

Novas izan genituen solaskide. Beroiek Ikastolak horrela definitu zituzten: *escuelas públicas no estatales* eta gehiago *por su gestión, funcionamiento y participación son más públicas que las públicas estatales*.

Alderdiezkerkiar batek zergatik ez dio bere laguntza eman behar, herriak herriarentzat sortu eta Euskal Herriari hain emaitza ugariak eta baikorrak eskaini dizkion mugimendu herritar honi?

(...)

ANTONIO CAMPOS

Iñaki Ituraini eta Aralarri erantzuna

Lehenik, argitu behar dugu guk egingako kritika, kritika politikoa zela: hau da, herritarren parte hartzerik gabe, eta, gure ustez, Orion dauden behar askoren aurrean, hutsunez betetako udal aurrekontuei egingakoa.

Argi dugu Iñakik eta Aralarrek guri bideratutako erantzuna bere herrian sortu duten arazoa estaltzeko modu lotsagarri bat besterik ez dela izan. Gogora ekarri nahi dugu bere ordezkariak bultzatu zuen taldeak duela gutxi Iñaki Ituraini egingako salaketa publikoa, taldearen erabakien aurka udal aurrekontuak onartu zituelako.

Talde horren aurrean erakutsi duen zintzotasun falta berdinarekin jokatu du Iñakik oposizioan ere. Ez da egia gure arteko bilerei buruz esaten duena. Aurrekontuak adosteko bi bilera egin genituen oposizio modura —ez bat, berak dioen bezala—. Lehenengoan, batzuen presak zirela eta, ez ginen akordio batera iritsi eta beste bat egiteko tan geratu ginen, hiru aste beranduago. Bigarrenengoan, berriz, eseri orduko Iñaki Iturainek gehienez ordu erdi bat egotea zeukala esan, eta berehala alde egin zuen bertatik; hori bai dela benetako errespetua!

Horrela, aurrekontuen hainbat gairi buruz (Ikastola,

gaztetxea, ongizatea...) Zarauzko zinegotzi Andoni Ibargurenekin jardun behar izan genuen.

Eta, beste hainbat gezurren artean, ikastolaren gaia lehen tokian eztabaidatzea inposatu genuela dio, eta hori ez bagenuen adosten, beste ezer ez genuela eztabaidatuko esan genuela. Hori ez da egia; gezurretan dabil.

Zibil eta zabal, ezker eta abertzaleak? Ez dakigu beste lekuetan; baina, erakutsi duzuenarekin, Orion ez behintzat.

ORIOKO EZKER ABERTZALEKO

UDAL TALDEA

Tekla azkarra

Orioko EB-Berdeak taldeko zinegotzi Iñaki Garciak azken KARKARAN argitaratutako gutunak pixka bat *deskolokatuta* laga nau. Udaleko teknikariak lotsagarri agertu omen gara, eta alderdikoi, Orioko Plaza udal aldizkarian nork bere alorreko aurrekontuari buruzko idatzitxo bana pres-tatu genuelako; KARKARA aldizkaria, berriz, aniztasun garbiaren ispilurik omen da. Buruari hazka irakurri dut gutuna: Udaleko teknikari naiz eta, horrez gain, KARKARA aldizkari-ko erredakzio taldeko kide.

19. ORRIALDEAN JARRAITZEN DU

Akatsak zuzenduz

Karkarako 255. zenbakian bi akats eder, behintzat, egin genituen 'Benitoren *Mirotzak* kantua Espainiako Musika Sarietan' izeneko albistean: sariok SGAEK antolatzen ditu eta ez Espainiako Ministerioak eta sari-dunek ez dituzte 30.000 euro jasoko. Guk jarritako datuak Espainiako Musika Nazionalerako sarietako dagozkie. Bar-katu hanka sartzea.

AURRENEKO ALDIZ, EZKER ABERTZALEAK EZIN IZAN DU PARTE HARTU HAUTESKUNDE AUTONOMIKOETAN

EAJ nagusi Legebiltzarreko hauteskundeetan

Martxoaren 1eko hauteskundeetan EAJ nagusitu zen Orion, EAEn bezala. Aralarrek aurreko botoen ia bikoitza lortu zuen. Abstentzioa %33,56koa izan zen.

Orioko 3.862 biztanlek zuten igandean Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan bozka emateko aukera eta, horietatik, 2.566k eman zuten botoa. Beraz, abstentzioa %33,56koa izan zen, 2005ean baino 6 puntu gehiago. Nabarmenezkoa da lehen aldiz ezin izan zuela hauteskundeetan parte hartu ezker abertzaleak.

EAJ izan zen alderdirik bozkatuena, 1.334 botorekin; bigarren D3M, 347rekin (baliogabetutako botoa); Aralarrek 310 jaso zituen; PSOE-EEK, 288; EAK, 116; EBk, 70; eta UPyD alderdi berriak, 5. Baliogabeko beste 6 boza eta 15 boto zuri ere izan ziren tarte-an.

Datu horiek 2005ekoekin alderatuta, EAJk 190 (+%16,6) boto gehiago lortu zituen; D3Mk, 194 (-%35,8) gutxiago; Aralarrek, 144 (+%87,7) boza-ko gorakada izan zuen; PSE-EEK ere 38 (+%15,2) gehiago lortu zituen; EAK 248 (-%68,1) boto galdu zituen; EBk 59 (-%45) gutxiago lortu zituen; eta PPK ere 43 (-%42,15) gutxiago.

BALORAZIOAK

Orioko EAJ alderdiaren esanetan: *Herriarrek mezua ulertu eta erantzuten jakin dute, baina etorkizunerako erronka partaidetza izango da guretzat, proiektu ilusionanteak eta erakargarriak sortzeko eta herriarrei helarazteko ahalegina egin behar du.*

Aralarreko Iñaki Iturainek adierazi digunez: *Abertzaleak*



Aurten abstentzioa nabarmen igo da, 2005. urtean bezala.

KARKARA

garen aldetik kezkatuta utzi gaitu hauteskudeen emaitzak, eta demokratik garen aldetik ere bai, ez dira demokratikoak izan-eta. Aralarrek

izan duen gorakada handiak, berriz, asko poztu gaitu, eta lanean segitzeko adorez bete.

EB-Berdeak-ek Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sai-

lean egindako gestioa ez dutela ulertu hautesleek esan du Iñaki Garcíak eta EAJri zorionak eman dizkio garaipenagatik: *Ez zen espero genuen emaitza. Gure ustez bipartidismoa zama handia izan da botoa nori eman erabakitze-ko garaian eta ez dugu hautesleekin bat egin.*

Ezker Abertzalearen balorazioa halaberrez salaketa egiteko da: *Herri honetako zati handi bati heriotza zibil eta politikoarekin zigortu gaituztelako. Aldi berean, eskeritzekoa da hainbat herritarrek Euskal Herri berri baten aldeko apustua eginez urrezko boza guri ematea.*

PSOE-EE eta EA alderdiei ere eskatu genizkien beren balorazioak, baina KARKARAKO edizioa ixterako momentuan, artean iritsi gabe zeuden.

HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK ORION

	2009	%	2005	%
EAJ	1.334	51,98	1.134	41,52
D3M (baliogabetua)	347	13,52	(EHAK) 541	19,81
ARALAR	310	12,08	166	6,07
PSE-EE	288	11,22	250	9,15
EA	116	4,52	364	13,33
EB	70	2,72	129	4,72
PP	59	2,29	102	3,73
UPyD	5	0,19	-	-
Besteak	16	0,63	18	0,67
Beste baliogabeak	6	0,25	8	0,3
Txuriak	15	0,6	19	0,7
Errolada	3862		3754	
Bozkek	2566		2731	
Abstentzioa		33,56		27,25

LANAK BUKATZERAKOAN AUTOPISTAKO SARRERA-IRTEERA IZANGO DU ORIOK

Txankako bideko zati bat itxi da, A-8ko lanak bukatzeko

A-8 autopistako Orio eta Donostia arteko bidearen zabaltze lanak bukatzen ari dira, eta, bestalde, herriko sarrera-irteera egiteko lanak ere oso aurreratuta daude. Lan horiek amaitzeko, bi hilabetez itxi dute Txanka-hondartzako bidearen zati bat.

Otsailaren 23an itxi zuten Txanka-hondartzako bidea Igeldoko bidetik San Martin-go bidegurutzeraino. Bi hilabetea A-8 autopistan egiten ari diren lanak bukatu nahi dituzte eta, horretarako, beharrezkoa dute tarte hori ixtea, errotonda egiteko. Errotonda Aste Santurako prest izatea espero dute obren arduradunek.

Nolanahi ere, hondartzatik Igeldora eta Txankatik San Martinera berdin-berdin joan ahal izango da ibilgailuarekin, errepideak zabalik jarraituko baitu.

LANAK

Lanak hiru atal nagusi ditu: lehenik, A-8 autopistan nora-bide bakoitzeko hiru errei jartzeari Orio eta Aritzeta arteko 7 kilometroetan; bigarrenik, bidea konpontzea; eta Orion Donostia alderako lotunea egitea. Hala ere, Zarautz alderako sarrera egiteko lekua ere nahita utzi dute, noiz edo noiz egitea erabakiko balitz.

Agidanez, hiru atalak bukatu arte ez da irekiko Orio-



Autopistako sarrera-irteeran egiten ari diren ordainlekua.

KARKARA

Beste lanekin batera, A-8 autopistako Orioko lotunea udan inauguratu nahi dute obraren arduradunek

ko lotunea. Oscar Rekalde Gipuzkoako Foru Aldundiko herri lanetako prentsa ardu-

radunak adierazi digunez, aurtengo udan inauguratu nahi dute eta erabat zabalduta utzi hiriburuarekiko lotura.

ORDAINLEKUA

Ordainlekuak lau pasabide izango ditu: bi, norabide bakoitzerako. Bi ertzetakoak ibilgailu berezientzat prestatuta egongo dira.

Erabiltzaile gehien udako asteburuetan izaten dira eta, premia izanez gero, pasabide horien norantza aldatzeko aukera izango dute.

LABUR

MUSIKA ESKOLA Elkartrukea

Aurtengo elkartruke kontzertuak Usurbilgo Zumar-terekin batera eskainiko dituzte Danbolin musika eskolakoei. Lehen saioa martxoaren 11n izango da, Sutegi kultur etxean, 18:30ean. Bigarrena, berriz, hilaren 26an izango da Orioko kultur etxean, 19:00etan hasita.

INGURUMENA Zuhaitz eguna

Martxoaren 15ean egingo da aurtengo Zuhaitz Eguna. Lanak egin berri dituzten ahateetako gunean, *Pan-cratiun maritimum*, *Festuca rubra*, *Eryngium maritimum*, *Carex arenaria*, *Ammophila arenaria* eta *Elymus farctus* espeziatiko landareak jarriko dira. Lehendik landareak zeuzkaten dunetan, berriz, artelatza, ereinotza, artea eta gurbizta landatuko dira. Guztira 60.000 landare eta 400 zuhaitz sartuko dira; batzuk, Zuhaitz Egunean bertan.

MUSIKA Mirotzak onena

Benito Lertxundiren *Mirotzak* abestiak eskuratu du euskarazko abestirik onenaren saria, Espainiako Egile eta Editoreen Elkar-teak antolatutako Musika Sarietan. Gramofono formako oroigarria etxera ekarriko du, hortaz.







HILAREN 25EAN PENTSIONISTEN ETA JUBILATUEN EGUNA IZANGO DA

Karta joko txapelketak izango dira laster babeslekuan

Zaharren Babes Lekuak egitarau betea osatu du datozen hilabeteetarako: mus, tute eta puntu txapelketak eta jubilatuen eguna egingo dituzte martxoan; apirilean, berriz, Zaragozara joango dira.

Martxoaren 16an hasita, mus, tute eta puntu txapelketak antolatu ditu Zaharren Babes Lekuak. Liga moduan jokatu-ko dira lehiak —4 jokotara— irabazitako partidako puntu bana lortuz. Azken lehen ondoren, joko bakoitzean aurrenekoa izango da irabazle eta, hortaz, txapela etxera eramango du.

Partidak 15:00etan hasiko dira, baina lehiakideak ados jarritz gero, ordulaurden lehenago ere has litezke jokoan.

Izena emateko epea irekita dago, eta martxoaren 8a izango da horretarako azken eguna.

JUBILATUEN EGUNA

Martxoaren 25ean izango da aurreneko jubilatuen eguna. Orioko elizan emango den mezarekin hasiko dute jaia, 12:00etan. Handik Aginagako Errasti sagardotegira abiatuko dira, 18 euroren truke han bazkaltzeko: 13:00etan aterako dira lehen bi autobusak Goizeko kafetegiaren aurretik; 13:30ean, berriz, beste bi.



Babes Lekuak arratsaldero jokoan ibiltzen diren asko izango da mus, tute eta puntu txapelketan.

KARKARA

Txartelak martxoaren 9an eta 10ean salduko dira, 16:00etatik 19:00etara eta beharrezkoa izango da bazkide txartela eguneratuta edukitzea bazkaritarakoa erosteko.

Bestalde, antolatzaileek zenbait ohar kaleratu dituzte ospakizunaren egunean bertan inolako arazorik egon ez dadin: bazkalorduan jatetxeko arduradunari eman behar-ko zaio txartela, eta joateko arrazoizko justifikaziorik ez duenari ez zaio itzuliko ordaindutako dirurik.

EGUNA PASATZERA

Apirilaren 24tik 26ra Zaragozara txangoa egiteko aukera jarri du Babes Lekuak. Oliteko bodega bat, Monasterio de Piedra, Calatayud hiria... bisitatuko dituzte.

Bi lagunentzako gela hartu nahi duenak 180 euro ordaindu beharko ditu eta 230 euro bakarrik lo egin nahi badiu. Ostatua, jatorduak, autobusa, bidaian lagunduko duen gida, bisitatuko dituzten monumentuetarako sarrerak eta bidaia aseguru hartzen ditu prezio horrek.

Kartetan aritzeko izena emateko epea irekita dago eta martxoaren 8a izango da horretarako azken eguna

Txartelak apirilaren 6an jarriko dira salgai, 16:00etatik 19:00etara eta beharrezkoa izango da bazkide txartela eramatea.

Automóviles ZARAUTZ
GIBELDIA ZERBITZU OFIZIALA
bikigailu berritak
guztiz berriak
ZARAUTZ. Tel. 943 13 13 50

RAMIRO
erreportaje
digitalak
943 83 10 48

Pinturak ELKAR
pintura eta paperatze lanak
zoru leunketa
Abendako industrialdea
943 83 08 45 / 619 60 33 35
ZARAUTZ



Taldekideak elkarren aurka jokatzen entrenamendu batean.

KARKARA

SAILKAPENEN AZKEN POSTUTIK IHES EGIN DUTE

Bi garaipen jarraian lortu ditu Orioko Tabernakek

Euskalduna eta Comodon taldeei irabazi ostean, Orioko Tabernak areto futboleko taldeak azkena izateari utzi dio sailkapenean gora egiteko.

Orain arte ez ziren denboraldi ona egiten ari Orioko Tabernak areto futboleko taldekoak. 18 partidatatik bi irabazi, lau berdindu eta beste hamabiak galdu zituzten eta sailkapenean azkenak ziren. Otsailaren 21ean, etxean, 1-0 irabazi zion Euskaldunari Gari Aguadok sartutako golari esker eta martxoaren 1ean, berriz, Comodon taldea baino gehiago zirela erakutsi zuten, 2-4: Gari Aguadok bi gol sartu zituen eta Asier De la Hozek beste bi. Horrela, denboraldi honetan lehenengoz, bi garaipen jarraian lortu dituzte eta azken postua utzi dute, hamaseigarrena, hamairugarrenerraino salto egiteko.

Sailkapeneko azken bi taldeak jaisten dira eta kasu batzuetan hiru ere izan daitezke, igotzen diren taldeak nongoak diren ikusi behar. Alberto Casado taldeko entrenatzaileak adierazi digunez denboraldi gaizki hasi zuten arren, oso emaitza onak lortzen ari dira azkenaldian eta, dirudienez, aurkitu dute joko estilo propioa: *Orain gogor entrenatzen jarraitu behar dugu eta ezin gara lasaitu, hurrengo asteetan partida garrantzitsuak baititugu. Denboraldia luzea da oraindik eta asko dago erabakitzeko.*

GORA EGITEKO AUKERA

Martxoaren 7an jokatuko dute hurrengo partida Tecnuni Bilboren aurka, 18:00etan Karelana. Kontrario izango duten talde horiazkena da une honetan eta hurrengo asteko aurkaria, Goierri, azken aurrekoa; beraz, datozen partidak

Sailkapenean azken eta azken aurreko dauden taldeen aurka jokatuko dute datozen bi jardunaldietan

irabaziz gero Euskaldunari aurea hartu eta sailkapenean gora egin dezakete nabarmen. Gainera, ez da ahaztu behar irailaren 18an, 15. jardunaldian, bertan behera utzi behar izan zuela Astraburukoren aurkako partida Orioko Tabernakek eta, horregatik, beste talde guztiek baino partida bat gutxiago jokatuko duela eta atzeratutako partida hori martxoaren 19an, san Jose egunean, jokatuko dutela etxean.

LABUR

ARRAUNA Jaitsiera

San Pedroko ontzia izan zen otsailaren 28an jokatutako Orioko traineru jaitsieran 6.000 metroak egiten azkarrena eta, beraz, Pasaiara eramane zuten Txurruka inmobiliariaren 2. bandera. Oriotarrak 3. eta 13. izan ziren.

4.000 metrotako estropada, berriz, Kataluniako Badalalona taldeak eramane zuten.

LILATONA Oriotarrak eta aiarrak prest

Ahalik eta emakume gehien korrika egiten biltzea helburu duen Donostiako Lilaton lasterketak 20 urte beteko ditu martxoaren 8an: han izango dira Oriokoak eta Aiakoak ere nazioarteko Emakumearen Eguna ospatzeko.

Iaz bi herrietako 15 emakumek hartu zuen parte.

ESKUBALOIA Lan eta lan

Eskolarteko eskubaloia txapelketan alebin kategoriako Orioko sei talde eta Aiako bat ari dira lehian abenduaz geroztik: horietako bi Zaraguetakoak dira, lau ikastolakoak eta bat Lardizabalgoa.

Nesken artean hiru taldek jokatzen dute, bana eskolako, eta hilaren 7an jokatuko dute denboraldia. Mutilak, berriz, bi kategoriatan ari dira jokoan: Zaraguetako eskolako eta Herri Ikastolako 6. mailako bana eta, 5. mailan, ikastolako bi talde. Martxoaren 28an jokatuko dute azken partida 6. mailakoek eta 5. mailako talde batek. Besteak, aldiz, hilaren 21ean agurtuko du denboraldia.

IÑAKI OLIDEN | IDIZALEA

“Idi pareen desafioak galtzen ari dira pixkanaka”

Egoitz Larrarte *Bizkarrer*en idi parearen aurkako lehia galdu zuten, tamalez, otsailaren 28an Iñaki Oridenen bi abereek. Apustua aitzakia hartuta, demak izan ditugu hizpide.

Nork nori botazion erronka?

Bizkarre bera etorri zitzaidan apustua egingo genuen galdezka. Banekien plazartu gabeko idi pare zuela eta hark ere bai, bazekien nik beste pare zuela. Duela bi hilabete hasi ginen apustua zehaztu nahian, baina ez ginen ados jarri. Hiru aste izango dira bigarren saiakera egin genduela eta baita bat etorri ere. Baldintzak hitzartu genituen gero biok: zenbat itzain, zein harri erabili, idien pisua... Apustulariek antolatzen dute dena. Gainera, erronka horrek bestelako izaera ere bazuen niretzat: gurekin entrenatzen jarduten zen Iñaki Saizarren omenez hartu nuen desafioa.

Asmo txarrik gabeko desafioak izaten dira, eta galtzen ari dira. Garai batean idiak prestatzeko egiten ziren, baina orain txapelketetan aritzen dira zuzenean.

Zerorri itzain izan zinen.

Etxeko idiekin neroni aritzen naiz animaliak gidatuz. Idiek ezagutzen naute eta lasaiago joaten dira. 2. itzaina librekoa hartzeko aukera nuen eta Ramon Ibarzabal



Txulo eta Txiki idi parearekin lortu zuen Oridenek apustua irabaztea.

KARKARA

Iketza eraman nuen, harria bultzatu eta idiak ibiltzera behartzeko. Bestalde, kanpotik lanean jarduteak abantaila emango ziola-eta, aurkariak Gipuzkoako bi itzain hartu behar izan zituen: Inaxio Telleria eta Joxemari Olasagasti.

Noiz konturatu zinen ez zenuela irabaziko?

Apustua hasi aurretik, kontrarioak esanda, konturatu nintzen nire idietako bat dardarka zegoela. Pare bat plaza

eginarazi nizkion, berotzeko, baina alferrik izan zen eta lehian idi bakarrak egin zuen lan: horrela ezin irabazi. Bestalde, Larrartek ikaragarritzko proba egin zuen: 54 plaza, eta nik 46,5.

Lehiara eraman aurretik, zenbat entrenatu behar da?

Bi urterekin hasten dira idiak harriari tiraka eta eguneroko ibiltzeak komeni izaten da. Txapelketarako prestatzeko, berriz, 7 bat urte behar izaten

Psikologia erabili behar da idiekin ere, gustura egon daitezen, harria arrastaka eraman ezinik gera ez daitezen

dituzte eta bi egunetik behin saioak egitea gustatzen zait, ez daitezen aspertu. Psikologia erabili behar da gustura egon daitezen, harria arrastaka eraman ezinik geratzen dira bestela.

Noiz jubilatuta, aldiz, animaliek erabakitzen dute: nekatzeko urtea nahikoa dute batzuek. Idizalea temati jarrita ere, ez dago horiekin zereginik. Beste batzuk finagoak izaten dira, eta 6 urte ere egin ditzakete, baina hortik goraz.

Hemen jokatzeko nekaturtegiak daudenean, Santander aldera saltzen dira. Idiekin 10 minutuko saioak egiten dituzte han eta, artean, lan egiteko moduan daude. Hara-ko balio ez dutenak, gizendu eta jateko hiltzen dira.

Denboraldiari begira, zer asmo duzu aurten?

Apustuko idi pare martxoan Azkoitiako kintopeko probetara apuntatu dut. Eta dudan beste idi pare gaztea Laudion arituko da apirilean.

iñaki argazkiak caperochipi

ezkontzeko asmorik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

URAITZ

lurraldeak

Enfuta 3 11 24 24 15 27

Kelso Loroazaleak

Kelso Loroazaleak
Javotzak Loroazaleak

kelso.loroazaleak 647028485

loroazalek eta lorazaleen diseinua eta mantentzea, urtekoak, simonak eta kimaketa espezializazioak.

JOXE BALERDI | TAXI GIDARIA

“Bono sistemarik gabe ez dago lanbidetzat hartzerik”

Azken zortzi urteetan Aiaiko taxista izan dugu Joxe. Nolako lanbidea den eta nola bizi duen galdetzeko elkartu gara.

Betidanik izan zara taxista?

Ez, lehen kamioi gidaria eta mekanikoa izan nintzen; gero hasi nintzen taxiarekin. Atzetik hartu nuen furgoneta hau, Getariako Eguneke Zentroarekin lan egiteko, gurpileko hiru aulki sartzeko tokia eskatzen baitzuten. Lanegunetan jendea jasotzen dut, hara eramane, eta arratsaldean buelta etxera. Gainontzean, ateratzen diren lanak.

Hortik aparte, zein erabiltzen du taxia?

Gehienak edadetuak dira. Garai honetan nahikoa buelta egiten ditut sagardotegietara, baina aurten nabari da gazteak pixka bat gutxiago joaten ari direla. Berandu bueltatzen naiz etxera eta hurrengo goizean berdin jai ki behar! Zer edo zeri heldu beharra dago. Hemen gastu finko handiak daude: furgoneta, zergak, gurpilak, gasolioa... eta zerbitzu publikoan aritzen zarenean, zorrotzago izaten dira betebeharrak.

Bezeroak zintzoak al dira orduarekin, diruarekin...?

Gehienak edadeko jendeak erabiltzen dutenez, ohituta daude garai bateko trena edo autobusa hartzen, eta ni bost minutu lehenago joanda ere, prest egoten dira beti.

Jubilatutako baserriko jende askok Diputazioak emandako bonoak dituzte eta doan ateratzen zaizkie bidaiak, nik kobratzen badut ere. Horiek gabe ezingo nuke taxia lanbidetzat hartu.

Kalekoak pixka bat jaitسي egin dira Landabus dela eta.



Ezinduentzat eta edadetuentsat egokitutako taxia du Joxek.

KARKARA

nagailuan sartzeko, edo pin-txo bat hartzen edo egonean, kontuakesaten. Taxian egonda, arraroa da musika edo notiziak jarrita ez izatea. Gero bezeroekin, bakoitzak nahi duenaren kontua da: batzuk beren gauzetan pentsatzen joaten dira, beste batzuekin eguraldiarekin hasi eta hortik aurrera ateratzen dena! Behin Oriotik Bilbora joan nintzen eta nire aldamenen zegoenak bidai guztia negoziok egiten pasa zuen, telefonoz eta ordenadorea klikatzen. Ez zidan ezta gero arte esan!

Jendeari taxira igotzen edo jaisten lagundu behar al izaten diozu?

Furgoneta ondo egokituta dago, atea irekitzerakoan kokka ateratzen zaio, baina jendeari heldu eta lagundu behar izaten diot askotan, bai, oreka ez galtzeko. Poltsak, bastoia eta trasteekin sartzeko dira eta bat-batean atzeraka egiten dute. Atzealdean plataforma du, gurpildun aulkiak sartzeko, baina badago pertsona bat bertan jartzea igotzeko. Gero barruan biratzen diren eserlekuak ditu, gurpildun hiru aulki sartzeko lekua, haiek lotzeko tresnak...

Kexarik ba al duzu?

Kexa ez da, baina nirea ezin da taxi arruntekin konparatu. Furgoneta aurreko bi aulki zituela hartu nuen. BEZ zerga ez nuen ordaindu ezinduekin egokituko nuelako eta 5 milioi ordaindu nuen; egokitzea beste 4,5 milioi: plataforma, eserleku bereziak, kokka, gurpilak lotzekoak, gerrikoak... Turismo baten tarifak kobratu behar ditut, ordea, eta ez da oso logikoa. Hala ere, erabiltzen duen jendea pozik dago eta horrek ere balio du satisfazioa sentitzeko.

Nahikoa buelta egiten ditut garai honetan sagardotegietara, baina aurten nabari da gazteak gutxixeago doazela

Jendea nonbaitera eramane eta zain egon beharko duzu?

Baserriko batzuk, adibidez etxe ataritik Eroskira eramane ditut, erosketa handia egitera, eta bueltan etxeko atarian uzten ditut. Hori ezin dute Landabusekin egin, karga handia eskuan helduta.

Taxia erabiltzen duen jendea pozik dago eta horrek ere balio du norberak satisfazioa sentitzeko

Horretarako tarifa diferenteak aurreikusita daude taximetroan: joan-etorria, zain egotekoa, buelta inor ekarri gabekoa, desplazatzeko...

Bakardade handiko lana da?

Ez. Denbora ematen dut fakturak eguneratzen, orde-

HAMABI LEHIAKIDEK PARTE HARTUKO DUTE GUZTIRA, TARTEAN AIARRIK EZ

Idi demak lau egunetan Iñaki Saizarren omenez

Martxoaren 6an, 7an, 9an eta 10ean Iñaki Saizar Zuloaga zenaren omenezko lau idi proba egingo dira Aiako probalekuan.

Aiako Udalaren babespean, Aiako Probazaleen Elkartek antolatuta lau egunetan idi proba bana egingo da, otsailaren 12an zendu zen Iñaki Saizar Zuloaga gazte aiarraren omenez. Martxoaren 6an, 7an, 9an eta 10ean izango dira demak Aiako probalekuan eta, guztira, hamabi idi parek parte hartuko dute. Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak gainbegiratuko ditu probak eta BBK sarirako puntuagarriak izango dira.

BALDINTZAK

Idiek 1.750 kiloko harria eraman beharko dute probalekuko alde batetik bestera, eta plaza gehien egiten dituztenak izango dira irabazleak.

Idi pare bakoitzak, bien artean, 1.100 kilotik gora pisatzen duen kilo bakoitzeko kilo eta erdiko gainzama eraman beharko du. Pisaketa apustu eguneko goizeko hamarretan izango da eta, ondoren, idiek zaintzapeko estalpe batean egon beharko dute.

LEHIA

Hirunaka jardungo dira lehian eta martxoaren 6an, ostirala-ekin, izango den lehen proban Illarreta errenteriarra eta Errezilgo bizkiak eta Ezkudun izango dira aurrez aurre.

Larunbatean, martxoaren 7an, Ernialdeko Miranda, Itziarko Erlete eta Hernaniko Zerain arituko dira deman.

Martxoaren 9an, astelehenean, Errenteriako Frantxilla-Berriren, Artola oiartzuarraren eta Nerea Telleriaren idiak izango dira harria mugitu beharko dutenak.

Martxoaren 10ean, asteartearen, azken proba egingo



Aiako probalekuan jokaturiko dira idi demak.

KARKARA

**Iñakik oso gustuko
zituen idi demak
eta askotan aritzen
zen bera ere
lanean.
Martxokoa haren
izenean egitea
baino omenaldi
hoberik ez zaigu
bururatu**

da. Bertan, Belauntzako Garmendia, Errezilgo Letea eta Oiartzungo Amalur arituko dira.

Gipuzkoan momentuan dauden idi pare onenak etorriko dira; nabarmentzekoak dira azken egunean arituko diren Garmendia eta Letea, antolakuntzak faborito aipatu baititu biak.

OMENALDIA

Iñakiri omenaldia egiteko proba horiek hartzea segituan pentsatu zuten, Jesus Aranbarri antolatzaileak adierazi digunez *Iñakik oso gustuko zituen idi demak eta askotan aritzen zen bera ere lanean. Martxokoa haren izenean egitea baino omenaldi hoberik ez zaigu bururatu.*

AIARRIK EZ

Idi proba hauek urtero martxoan egiten badira ere, aurtentzen ez da aiarrik izango. Aranbarri arrazoia galdetzean haxe erantzun digu: *Aia oso herri txikia da eta, gustatuko litzaigukeen arren, zaila da inguruko norbaitek harri handirako idiak prest izatea. Maiztzean eta azaroan ere idi demak izango ditugu hemen eta ziur aiarren bat edo beste animatzen dela lehiara. Bestela, tartean beti izaten dira ezagunen arteko apustuak.*

LABUR

LANDABUS

Ordu aldaketa zerbitzuan

Landabus zerbitzuak ordutegi berria du martxoaren 2tik aurrera. Aldaketa horiek aurreko hila-beteetako esperientzia eta jendearen eskakizunak kontuan hartuta egin dira, zerbitzua hobetzeko.

Udaletxean, kultur etxean, autobusean bertan edo karkara.comen eskuradateke ordutegi berria.

HAUTESKUNDEAK

Botoen %76,33 EAJrentzat

Martxoaren 1eko EAEko hauteskundeetan EAJ izan zen boto gehien jaso zituen alderdia Aian: 597 izan ziren guztira, eta baleko botoen %76,33 hartu zuen. 91 botorekin Aralar izan zen bigarren indarra, PSE-EEK 52 lortu zituen, EAK 20, EBK 13 eta PPK 6. UPyDk ez zuen botorik lortu. 127 baliogabetutako boto eta zuri bat ere izan ziren.

1.483 aiarrek zuten botoa emateko eskubidea, baina 910ek egin zuten, eta abstentzioa %38,64 izan zen.

AMETSGAINJ

Udalak helegitea

Epaileak arrazoia eman zion Ametsgain kooperatibari Udalarekin zuen auzian. Orain, helegitea jarri du Udalak eta, ondorioz, abenduan onartutako Arau Subsidiarioak salatu ditu Ametsgainek.

KARKARAJ

Banatzaile bila

KARKARAK banatzaile behar du Aiarako. Intere-satuek erredakziora dei dezatela.

AIAKO LEHIOA

Kimu haurreskola

Goizeko zazpi eta erdiak dira, lehenxeago atea ireki dela sumatu dut. Bukatu da tristura eta bakea ordu batzuetarako. Lehen txikitxoak puntu-puntuan dator amaren besoetan. Bazkaria hezitzaileari eman eta haurrari agur esaten dio. Egun denak ezberdinak dira, batzuetan alai sartzen dira, baina beste batzuetan gehiago kostatzen zaie. Atea ixtearekin batera beren lagunekin jolasean hasten dira.

Goizero saioa egiten dute, eskua eman eta kantu artean. Batzuetan gometxeekin borrokan jarduten dute, behatz txikitxoetatik paperera itsatsi ezinik. Bestetan, margoekin marrazketak egiten saiatzen dira, nahiz eta artista hauetako askok oraindik beren margoen zaporea dastatzea nahia-

go izan. Baina ezin denbora askoz eserita egon eta asperitu orduko gelara joaten dira jolastera.

Bazkal orduan, eskutxoak garbitu eta mahaian esertzen dira. Beren argazkia duen aukia topatu eta baberoak jantzen dizkiete. Denbora gutxian,

aurrerapauso ikaragarriak egiten dituzte. Biberoitik pureetara, gero janari osoak murtxikatu eta jatera, lehenengo laguntzarekin eta ondoren bakarrik. Bazkalorduan edozer gerta liteke: platerak airean ibiltzea, goseak dagoen haurraren negar eta protestak

entzutea... pazientzia eta lasaitasuna gordetzea ezinbesteko osagaia izaten dira. Bazkaldu ondoren, etxera doazenak jantzi eta gainerakoak siestarako prestatzen dituzte. Txikienak sehasketan eta zaharrenek hamaketan egiten dute lo, txupetea hartu eta mantatxoekin tapatuta.

Arratsaldea lasaia go izan ohi da eta eguraldi ona dagoenean kalera irteten dira. Sei eta erdiak, elizako kanpaiak *tan-tan* egiten duenean isiltasuna eta tristura iristen da barruti honetara.

Bihar beste hainbeste izango da, beste doinu eta melodia batzuk entzungo dira.

**Denbora gutxian,
aurrerapauso
ikaragarriak
egiten dituzte.
Biberoitik
pureetara, gero
janari osoak
murtxikatu eta
jatera**

**Sei eta erdiak,
elizako kanpaiak
tan-tan egiten
duenean
isiltasuna
eta tristura
iristen da
barruti
honetara**

GARBIÑE EZKERRA, GORETI
SUBINAS ETA ELI URIA
HEZITZAILEAK

TXOKOAK ETA JENDEA



Inauteriak herrian

Aian ere ospatu genituen Inauteriak. Eskolako umeak kalez kale ibili ziren, baina haurreskolakoak han bertan egin zuten festa, amona mantangorritz mozorrotuta. Hemen dituzue Jurgi, Mikel, Erik, June, Julen, Udane, Dona, Ander, Mikel, Unai, Amets eta Iraide, Goretti eta Eli hezitzaileekin. Argazkian Markel eta Gorka falta dira, baita Garbiñe hezitzailea ere, norbait behar genuelako umeak gelditu xamar edukitzeko argazkia egin bitartean!

Emakumezkoaren eta gizonezkoaren arteko ezberdintasunek zeresan handia ematen dute, oraindik, egungo gizartean. Gero eta ohikoagoak ditugun arazoak aztertu eta bi sexuen arteko berdintasuna bultzatu eta errealitate bihurtzeko elkartzeko da emakume talde bat: Orioko Xaltxerak.

LORE BERASALUZE

Has gaitezen parekidetasunaren egungo egoera aztertzen. Azken urteotan aldatu al da?

Aurrerapausoak pixkanaka ematen ari gara, baina lan asko dago egiteko. Kanpotik begiratzuz gero, itxuraz, emakumezkoak eta gizonezkoak berdintasunean bizi garela eman badezake ere, oinarrian aldaketa gutxi gertatu dira. Dagoenarekin konformatzeko arriskua sor dezake horrek.

Gizarteak berdintasun kontzeptua barneratzeko dauka. Ezaugarri jakin batzuk onartzen ditugu gizonentzat, bestelako batzuk emakumeentzat eta egunerokotasunean guztiz barneratuta daukagu, nahigabe bada ere.

Garai batean urraketak erraz identifikatzen ziren, ezberdintasunak nabarmenagoak baitziren. Orain, aldiz, sotilagoa da gizartea: krisi egoeran, adibidez, emakumeak izaten gara zigortuenak, kalera aurrea botatzen gaituztenak. Berdintasuna-



KARKARA

ORIOKO XALTXERAK | EMAKUME TALDEA

“Galduta dabilen emakumeari babesa eman nahi diogu”

ren aldeko lege asko daude, baina marketing hutsean geratzen dira gehienak.

Neska-mutilen rolak txikitatik finkatzen omen dira. Hezkuntzan eman al da aurrerapausorik?

Ezin uka dezakegu betiko jarrera batzuk mantentzen direnik. Gauza asko dira eskolan aztertu beharrekoak: ikasgelaren antolamendua, erabiltzen den materiala, jolas-tokiaren erabilera... Hala ere, irakasle eta ikasleok gure sexuaren arabera hartzen ditugun rolei ere erreparatu beharko genieke eta horiek aldatzen saiatu.

Hala ere, badaude plan eta kontzientzazio era berriak: hezkidetza lantzen hasita daude eskola asko eta Bilgune Feministak ikastetxeetan erabiltzeko hezkidetza gida ere argitaratu zuen.

Belaunaldi asko eta asko beharko dira berdintasunera iristeko, gizarte osoari eragiten dieten ohiturak aldatzeko denbora behar baita.

Erakundeek behar bezalako garrantzia ematen al diote?

Norbanako batzuk kontzientziazioa baduten arren, sistemak ez du aldaketarako gogorik erakusten. Familiari ez zaio duen garrantzia ematen; haurra jaiotzean daukagun baja oso laburra da; eskolako umea gaixo jartzean, ez daukagu baliabiderik seme-alaba zaintzeko, aiton-amonengana edo jo behar dugu gurasoak beharrezkoak direnean; ikastetxera egokitzera koan arazoak izaten dituzte gurasoek, haurra zaintzeko inor ez daukatelako.

Hala ere, mantso, baina badatoz aldaketak: lanaldi murrizketak... Sistema ez dago bi pertsona etxean eta kanpoan lanean aritzeko egokituta; are gutxiago, umeak guraso bakarra duenean. Ez da errealitatera moldatzen; egoera horiek era arruntean ematea bermatu beharko liguke; hori lortzeko egin beharko lukete lan erakundeek.

Komunikabideek esaten den

bezain besteko erantzukizuna al dute?

Indar eta eragin ikaragarria dute, gizartean asko kontsumitzen den produktua baita. Guk geuk badaukagu iragazkia eta hitzek egin dezaketen minaz konturatzen gara; baina, orokorrean, haiek esandakoa jan egiten dugu, besterik gabe. Eta milaka adibide daude: harreman ereduak, gizon-emakumeen rol finkatuak, publizitatean emakumea objektu gisa tratatzea... jarri *Gran Hermano*, *Fama* edo antzeko saioei begira; ikusi bi sexuen arteko harremanak. Zein eredu ari dira ematen? Horren inguruan benetan egiten al da hausnarketa?

Lehen arazoa isildu egiten zen eta egun, nahiz eta ikaragarrizko kanpainak egin, berdin segitzen dugu, arazoari adarretatik heldu gabe.

Genero biolentziari helduz, gero eta gehiago dago ala ohiartzuna da?

Tratu txarrak beti egon dira, baina hainbeste heriotza? Erasotzailea oldarkorra goa da orain, edo horiei bakarrik ematen diegu ohiartzuna. Indarkeria ez da fisikoa bakarrik, psikologikoa ere bada. Oso merkea da—erasotzaileak ez dauka benetako zigorririk— eta oso barneratuta daukagu: emakume bat hiltzean, *beste bat* esan eta gure bidetik jarraitzen dugu.

Ez dago batere babes sozialik: tratatu txarrak jasotzen dituen errudun, bakarrik, ezkutuan sentitzen da. Salaketak jartzean kasuak ez dira behar bezala aztertzen eta hartzen diren neurriak ez dira nahikoak. Egoera horretan erasotua ahul egotea da normalena, eta babes sozial eta psikologiko handiaren beharrean egoten da. Denok izan behar dugu babes hori indartzearen erantzule, ez dadila biktima bakarrik borrokatu.

Gizonak biolentziarekin menpeko harreman bat mantentzea du helburu eta hori azkenean, jendartearen isla besterik ez da. Gizarte patriarkal batean gaude eta emaku-



meok beren menpe gaude.

Udalek ere ez dute berdintasunaren aldeko eta biktima babesteko apustu serioirik egiten.

Orion kontzientziazioa al gaude?

Kontzientziazioa badago, baina herria da mugitzen ez

dena, multzo txiki bat izaten da beti aurrera egiten saiatzen dena. Garai batean mugimendu handia egon zen herrian: emakume talde bat biltzen zen eta aurrerapauso handiak eman zituzten, lana franko eginda. Azken urteetan, ordea, asko kostatzen da emakumearen presentzia herrian



KARKARA

nabarmentzea. Egin diren saiakera guztiak, hitzaldiak, adibidez, ezerezean geratu izan dira. Interes falta handia erakusten du horrek, beste arlo askotan bezala.

Xaltxeraktaldea bere bidea egiten joango da pixkanaka, baina hasiera batean emakumearen inguruko urteko egun

zehatzetan parekidetasunaren gaia ardatz hartuko duten zenbait ekimen antolatzeke hasi ginen elkartzen; herritarrari egoera nola dagoen eta zenbat gauza dauden oraindik egiteko eta lortzeko ikusarazteko.

Ez gara astero elkartzen, ikusten ditugun lan horien

EGUNGO EGOERA

“Kanpotik begiratuz gero, itxuraz, emakumezkoak eta gizonezkoak berdintasunean bizi garela eman badezake ere, oinarrian aldaketa gutxi izan dira”

ALDAKETAK

“Belaunaldi asko beharko dira berdintasunera iristeko, gizartearen ohiturak aldatzeko denbora behar baita”

SISTEMA

“Sistemak ez du aldaketarako gogorik erakusten. Familiari ez zaio duen garrantzia ematen... Ez dago bi pertsona etxean eta kanpoan lanean aritzeko egokituta; are gutxiago, umeak guraso bakarra duenean. Ez da errealitatera moldatzen”

GENERO BIOLENTZIA

“Tratu txarrak jasotzen dituen errudun, bakarrik, ezkutuan sentitzen da. Salaketak jartzean kasuak ez dira behar bezala aztertzen eta hartzen diren neurriak ez dira nahikoak”

TALDEAREN HELBURUAK

“Emakumearen inguruko egun zehatzetan parekidetasunaren gaia ardatz hartuko duten ekimenak antolatzeke hasi ginen elkartzen Xaltxerak; herritarrari egoeraren berri eman eta emakumeari babes soziala eskaintzeko”

PARTAIDEAK

“Guk geuk gauza asko ditugu oraindik definitzeko eta hitz egiteko”

inguruan jarduteko beharrezkoa denean baizik, aipatutako egun berezi horiek prestatzeko. Aurretik esan dugun babes sozial hori emateko ere bai, jakina. Politika izangolitzateke horrelako talde bat egotea, galduta, laguntzarik gabe dabilen emakumeari babes emateko, nora

jo ez dakienean. Pentsamolde ezberdinetakoak izanda ere, emakumeak batuko gaituen elkarte izan nahi du Xaltxerakek. Bide batez, parte hartzerari animatu nahi dugu jendea. Gurekin harrremantant jartzeko oriofeminista@gmail.com helbidera idatz dezakezue edota nahikoa

izango duzue antolatutako jardueretara azaltzea.

Emakumezkoentzat bakarrik al da?

Denen iritziak hartu behar ditugu kontuan, baina guretzat bakarrik den gunea izate garrantzitsua da. Guk geuk gauza asko ditugu oraindik definitzeko eta hitz egiteko eta taldean biltzea norbere buruarekiko lana egitea ere bada. Lehendabizi taldeari forma eman eta guk adostu behar ditugu nondik norakoak, gero besteekin elkarbartzeko. Erosoago, babestuago gaude emakumeek soilik osatutako talde batean, denok pairatutako edo bizitako arazoak hizpide ditugula.

Gizonezkoiei mespretxua irudituko zaie, baina ez dute baztertuta sentitu behar. Irekita gaude gizonezkoen proposamenak entzuteko eta garrantzitsua iruditzen zaigu lan hori ere beren kabuz egitea ere, berentzako tailerrak sortuz. Elkarrekin biltzeko unea iritsiko da. Aurrera joateko haien inplikazioa beharrezkoa dugula jakina da.

Diagnosi bat ere jarri du martxan Udalak. Ados zaudete?

Batzuk txiripaz enteratu ginen diagnosia egiten arizirela eta deialdia ere egin zutela. Herritarrek ba ote zekien horren berri? Udaletik gauzak gaizki planteatu zirela uste dugu. Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasun plana ezin da egun bateko elkarriketetan oinarritu eta hilabete eta erdian ondo egin, eta ere gutxiago planteatu den moduan. Deialdietara ez zen inor agertu, baina berek ere ez zituzten aukera asko eman. Egun hura bakarrik zuten lana egiteko nonbait eta guk beste alternatiba batzuk aurkeztu bagenizkien ere —galdera irekiak guri pasa, gazteengana hurbildu eta ahalik eta esparru zabalena biltzen saiatuko ginela esan genien—, ez genuen inolako erantzunik jaso eta, beraz, ez zen aurrera eramane proposamena. Diagnosiak parte hartzailea izan behar du.



Leire, Eider, Karmele, Ainara eta Koro taldekideak. Beste zenbait xaltxera falta dira argazkian.

KARKARA

Pisu handia du diagnosiak, lan garrantzitsua da eta egiteko modua ez zaigu bate-re egokia irudit. Uste dugu azaleko lan bat egingo dutela, itxurakeria diru laguntza justifikatzeko. Ez zaio gaiari benetan helduko.

Diagnosi on batek berdintasun plana martxan jartzeko balio beharko luke; herrian dauden behar horiei erantzuna emateko. Kokapen bat egitea eta kontzientziazioa sortzea eskatzen du aurrena. Herritarrekin hitz egin eta harreman horietan gaiari buruz hausnartu beharko litzateke; hortik ondorioak aterako lirateke. Adierazgarria izango al da diagnostiko hori? Benetako errealitatea islatuko al du?

Eta diagnosi on bat beharrezkotzat jotzen al duzue?

Bai, dudarik gabe. Xaltxerak taldearen lehen bileran argi geratu zen oso garrantzitsua dela. Udalak egin duena ez da halakoa eta benetako

diagnosia exijitu behar dugu. Beharrezkoa da lanean ari garenontzat herrian zein behar dauden jakitea. Egunero bizi ditugun egoera gaizto horiek aldatzeko aukera izatea ezinbestekoa da.

Martxoaren 8a hartu duzue begitan. Zer antolatu duzue?

Emakumezkoaren nazioarteko egunean, hilaren 8an, elkarretaratzea izango da plazan, 13:00etan. Balea elkartearen herri bazkaria antolatu dugu gerorako. Txartelak kultur etxean eta Kolon Txiki, Errusta, Kalakari eta Unar tabernetan daude salgai, 15 eurotan, martxoaren 6a arte.

Hilaren 14an, berriz, autodefentsako egun osoa (09:30etik 18:30era) ikastaroa izango da emakumeentzat, kiroldegian. Gutxienez 10 laguneko taldea osatu beharko da ikastaroa egin ahal izateko. Interesatuak Karelana eman dezakete izena eta bertan ordaindu 10 euroak.

Bestalde, 4an Emakume-

“Martxoaren 8an elkarretaratzea izango da plazan, 13:00etan. Balea elkartearen herri bazkaria antolatu dugu gerorako. Hilaren 14an, berriz, autodefentsako egun osoa ikastaroa izango da emakumeentzat kiroldegian”

en mugimendua, 1970etik gaur arte hitzaldia izatekoa zen, kultur etxean.

Noiz izango dira hurrengo ekimenak?

Ekainaren 28a gay eta lesbianen eguna da eta sexualitatearen inguruko tailerrak egiteko asmoa daukagu, Eider Goiburu sexologoarekin. Eguna aurrerago zehaztuko dugu.

KARKARA

Garaiak garai, Karkarak aurrera darrai

KARKARAK 20 urte beteko dituela-eta atal berri hau estreinatzen ohera neure egingo dut. Kasualitate hutsa izango da, baina joan den azaroan aldizkariaren eboluzioari buruzko ikerketa bat gauzatu nuen unibertsitatean agindu zidaten lan batetarako.

KARKARAK esfortzu handia egin du urteetan eta, trabak traba, aurrera egiten jakin du. Nik nire esperientzia ere izan dut aldizkarian. Lehen hartu emana 2002an izan nuen. Urte hartan euskarako irakasle zen Jon Manterolarekin batera ikasle batzuei atek ireki eta erredakzio taldeko parte izaten utzi zigun bi astez KARKARAK. Garai hartan, gainera, *Ikasleak idazle* ere martxan jarri zuten. Orduan ere zortea izan nuen eta nire artikulua bat agitaratu zidaten.

Alde horretatik eskertze-koa da ikasleen artean kazetaritzarako zaletasuna pizteko izan duen joera. Duen ger-



IKER GURRUTXAGA
KAZETARITZA IKASLEA

tutasunaren adierazgarrieta-ko bat da hori. Niri, behintzat, ez dakit horrek ez ote zidan piztu kazetaritza ikasteko gogoia; horrek eta matematikak oso gustuko ez izateak.

Baina KARKARAN 2006. urtean jardun nuen benetan lanean. Kazetaritzan hasi berria nintzelarik, kirolen atalean jarduteko proposatu zidaten nire bloga irakurri ostean. Ezin

ezetz esan halako zerbaiti. Ikasten hasi berria den baten-tzat eta kirolzale denarentzat karamelu benetan gozoa.

Orduan hasi nintzen KARKARAN lan egitea hain erraza ez dela ohartzen. Bi astez behin edukiak, interesgarriak eta gaurkotasuna dutenak landu behar dira eta, kirolean behintzat, zaila izaten da, besteak beste, errepikatzea erraza delako. Hala ere geroz eta kirolari eta kirol modalitate gehiago daude Orion eta horrek lana zertxobait errazten du.

KARKARAKOEN lana txalogarria da; kritika asko jasan behar izaten dira eta, askotan, herrian kazetari on asko agertzen baitira. Kritikatzeko ongi dago, baina lanean bakean utz ditzagun. Badirudi edonork egin dezakeen zerbait dela eta ez da horrela.

Azkenik, karkara.com aipatu gabe ezin dut utzi. Berehalakotasunaz gain, parte hartzea gehiago eskertzen dut

nik. Egunean bizpahiru aldiz bisitatzen dut eta askotan saltan sartu ere bai. Eta badira erabiltzaile anonimo batzuk aurpegia emateko gai izan ez direnak. KARKARAREN baime-narekin, anonimo horiei berriz ere niregana hurbiltzeko eskatu nahi nieke, kritika ugari egiteko joera baitute (edo baitu, zalantza dut guz-tiak pertsona bera ez ote diren...) eta badirudi kritika-tuak izateko beldur direla.

Laburbilduz: Zorionak KARKARA 20 urtetan eboluzioa bikaina izan da eta garaiei egokitzen zinez ongi jakin duzelako. Ea etorkizunean guztion artean mantentzen dugun eta 20 urte barru Jabi Zabaletaren eta Ana G. de Txabarriren jubilazioa —ongi merezia izango dutela, seguru nago— izaten diren albis-te!

Eutsi goiari!

**“Zortea izan nuen
eta artikulua
agitaratu zidaten
ikasleak idazle
atalean eta,
niri behintzat,
ez dakit horrek
ez ote zidan piztu
kazetaritza
ikasteko gogoia”**



KARKARA BANATZEKO LAGUN BAT BEHAR DUGU AIAN


**Zaragueta
Eskola Orto**
telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net


ZSS
Iluspaindegia eta estetika mistoa
San Miquel, 2 Telf.: 943 833170


JUAN PEDRO FERNANDEZ OSA
JOSE ZENBARKIM PSIKOLOGO KOLOGIKATUA
AMELNUKUNTZA ERORTE ARTEAN (JATZAKETAN)
PRESTAKUNTZA TREBETASUN SORBITZETAN
946 99 25 47
info@jpferrandezosa.com


LORETXU JATEAK
Eusko Gudari, 18 Telf: 943 83 00 07

ADARRETATIK HELDUTA

Ez nazatela erre

Inork agintzen ez didalako dut maite maite dudan. Horrela idazten zuen Joseba Sarrionandiak, hezetasunean, hotza eta gosea etsai zituelarik, kartzela ilunean preso zegoen bitartean. Eta zaila egiten zait kartzelako egoeran egiten diren gogoetak baino sakonagoak diren batzukegitea dagoenik pentsatzea.

Baina gogoetak gogoeta, eta egoerak egoera, denok maite dugu zer bait edo nor bait, sentimendurik ez duela erakutsi nahi duen pelikuletako gangster gogorrik barne.

Eta ni ez naiz salbuespen bat, nahiz eta askotan gogorrena egitea gustuko dudana. Nik ere maite dut, eta inork agintzen ez didalako gainera. Nik maite dut herri hau; ematen didan nazkaren gainetik, maite dut.

Bai, arraunak nazka ematen dit eta niretzat Kontxako estropadako bi igandeak parrandarako aitzakia bat besterik ez dira. Nazkaturik nago hainbeste salto egiten duen gizon horretaz ere (*Hi! Zorionak! Oso ondo, baino... daoneako nahikua ez al dek?*).

Gainera, ez dut Benito Lertxundigogoko, beti nahiago izan baitut Mikel Laboa (goian bego). Eta hori gutxi balitz ere, ez dut, sekula, hainbeste goraipatu duten eta SGAE-k (Ez!GAE) ere sari bat emandion *Mirotzak* kantua entzun. Politikoeak ere nazkatzen naute, superPNV-



EÑAUT MARTÍ
IKASLE TXARRA

Arraunak nazka ematen dit eta niretzat Kontxako estropadako bi igandeak parrandarako aitzakia bat besterik ez dira

Nahiago dut Orio Estilorako kamiseta traputarako erabili, Bisiguaren egunean marmitakoa jaten dudana bitartean

ren handikeriatik hasi eta ezker abertzalearen biktimismoraino.

Ikusten duzuen bezala, ez naiz eredutzat har daitekeen oriotarra, eta nahiago izango dut Orio Estilorako kamiseta traputarako erabili, Bisiguaren egunean marmitakoa jaten dudana bitartean. Edo nahiago izango dut musika punki zikina joz (*The SaSTre!*) *kostra tailer*rean gozatzea, Orion! Sport Musik Fest elitistan hain gogoko dudana Delorean taldea ikusi eta skatean hanka hautsi baino.

Eta bai, OKK-kizenarekin asmatu zuen, Orio kaka bat da; baina, hala ere, denok maite dugu, Itxaspeko begiratokian neska hark eman zizun muxuagatik; lagunekin *turroian* pasatako arratsaldeengatik; edota hiruretan kutxan —eta bizikletarekin, noski— elkartzen ginen garaiengatik.

Zerbaitetarako balio izan digu bizikletan ibiltzen ikasteak ere; behintzat, oraindik, udaltzainek ez dute txirrindulariei multarik jartzeko agindurik jaso; eta oraindik diot, herri honetan inoiz jakiten ez delako.

Baina gazteleraz esaten den bezala, *Hay algunos peros que...* eta *algunos* baino gehiago esango nituzke nik.

Soilik herriko ikur garrantzitsuei erasotzeagatik, inor ez hasarretzea espero dut, eta lasai, Benito, ez da ezer pertsonala; hiztegiak dioen bezala:

You'll never walk alone!

NIRE HONETAN

Baldinbaitere, Usua maitea

Hauteskundeen eta emakumeen egunen artean idazteko, bi emakumeren egoerei helduko diet: Usua, bilobarena eta Aintzane Ezenarro, Aralar alderdiko liderrarena.

Zenbat emakume izango ditugu ordezkari politiko Ezenarrok orain duen adinera iristen denean Usua? Zertaz sentituko da pozik eta harro? Gizonezkoen parean aurkituko da ordurako? Errespetu bera jasoko ote du? Badut zergatik galdetu: Javier Dominguez kazetariak Ezenarrori egindako elkarrizketa.

Politikariaren curriculum politikoa eta pertsonala goraipatu ondoren, *bitxi* iraingarria opari; ergela, zerikusia ez duena eta arreta merezi ez duena: *Bitxikeria bat, nahiz eta ez jakin graziaz egiten dion, interneteko orrietan euskadiko emakume sexy-enetakoen artean jartzen dute*. Baina jakina, ez dio galdetzen zer pentsatzen duen *bitxikeriaz*, ziur bainago merezi duen mespretxua jasoko zuelako.

Ezenarrok aipatzen dituen gauza garrantzitsuenetako bat: berdintasuna emakume eta gizonen artean lortzea. Baldinbaitere! Usua, maitea. Baldinbaitere!

PAT COWIE

ARKAITZ Taberna
Pinxoak,
plater konbinaluak
eta ogitarleko mundialak
ABESLARI KALEA, 1 Tel: 945 85 16 57

bodegas ERRASTI, S. L.
Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gallur: Señorío de Laurgain
Gallur eta Arandegui
Arabar Errioxako ardoak
Euzko Gudar, 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 99 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

MOILA BAZTERRETIK

Zuek euskara eta guk traktoreak



JON AGIRRESAROBÉ TORROTXO

Ba al zenekiten Lehendakaria bakarria dela? Bai, belarri handia orain arte, baina badator belarri motxa. Ez, ez da broma, euskaraz Euskal Autonomia Erkidegoko presidenteari erreferentzia egiteko bakarrik era-

bili behar da lehendakari hitza. Euskara zaintzen dutenek eskusiban gordeta daukate hitza. 1986an Lakuntzan egindako bileran jarri zuten legea, bazkaldu aurretik: *lehendakari titulua lortzeko hauteskunde autonomikoak irabazi behar dira*. Edo polo indartsua sortu, sumak 38 eman dezala. Baina urrutigelditu da polo soberanista, lapajalearenak eta atzerrian bizi diren artzain arabarrenak kontatuta ere.

Pentsatzen hasita, lehen ere kalean entzuna nuen, protekziozko etxeak denborarekin garesti ateratzen direla. Galdetu, bestela, Ziarreta eta Madrazori. Halere, lehengoraitzuliz, euskara hizketagai: Makatza, Zentellas eta Dani kirol elkarteetako presidentek dira, eta ez lehendakariak.

Bestalde, oraingoan ere grazia egin didate hauteskunde eguneko interbentoreek. Mahaiaren bi ertzetan, zozketaz egotea tokatu zaien presidentea eta bokalen ondoren eta umore hobean egoten dira alderdietako ordezkariak. Botoa ematera sartu orduko izena zeinek lehenago esan builaka hasten diren horiek: Agirresarobe Lopetegi Jon! Kontua da, karneta erakutsi behar dela bozkatzeko.

Kanpainan haserretu ere egin nintzen politikariak traineru hori batean ikusi nituen. Traineru hori batean ez, traineru horian. Gurean, denona den traineruan. Peronarena edo Elkartearena izanagatik, baimenak eskatuta ere, berdin dio, hori ez da egiten. Ezin dugu herriaren irudia eta kolore horia siglelotu,

Alkateak esana da herriko gazte bati, politika eta arrauna ez direla nahastu behar, gainerik dagoela. Arrazoi. Baina etxean ere eman azalpenak

ez batzuk ezta besteak ere. Alkateak esana da herriko gazte bati, politika eta arrauna ez direla nahastu behar, gainerik dagoela. Arrazoi. Baina etxean ere eman azalpenak.

Eta lasai. Egurra eman du trianeru horiak, ez beldurtu. Ostera ere, zuek euskara baina traktoreak guk.

4. ORRIALDETIK DATOR GUTUNA

Zer naiz, orduan? PNVri salduko morroi *lotsagarria* ala aniztasunaren paladina? Pixka bat nahastuta nauka kontu horrek.

Bestalde, partzialtasunez eta etika gutxi jokatu omen dugu teknikariok, Orioko Plazarako idatzitxo horiek presatuta, eta aurrekontuak *bedeinkatu* egin omen ditugu horrela, nahiz eta jakin badakigun zinegotzi batzuek ez dituztela ontzat hartzen.

Arrazonamendu-edo horrek harrituta utzi nau bere eska-sean. Inpartzialago izango al zen guk ezer idazteari uko egitea aurrekontuak bozketaz erabaki direlako? Benetan uste al du hori Ezker Batuko zinegotziak?

Politikariei dagokie aurrekontuak onartzea, aho batez ala gehiengoz, eta teknikariok ez dugu horretan sartu behar. Trukean, ez dirudi gehiegi politikariei eskatzea ez nahasteko gu beren eztabaidetan.

Errespetu handia diot Ezker Batuari eta, zer esanik ez, hauteskundeetan aukera horren alde egiten duten herri-

tarrei; baina Orioko zinegotziak pentsatu egin beharko lituzke gauzak pixka bat, *bida-li* botoiari horren azkar eman aurretik.

JABIER ZABALETA

Hobe dugu bakean

Karmelek, Josebak eta Eme-terioi Urola Kostako Hitzan plazaratu zuten gutunari buruz (KARKARA honetan ere azaltzen dena) ez daukat askorik esateko. Dena esana dago aurreko gure idatzian. Nikhan ez nuen gezurrik esan; bat

bakarria ere ez. Eta orain berretsi egiten dut osorik.

Ez daukat gogorik gai honekin honela segitzeko. Aurrerantzean ere elkarren ondoan segitu beharko dugu lanean, udaletxean eta kalean, herritarren alde. Eta hori ondo egiteko, ez zaigu kome-ni lubaki handiegirik irekitzerik gure artean. Gero ere gauza asko adostu beharko ditugu, eta batzuetan amore eman. Herriaren aurrean ezin dugu horrelako ika-mika antzu eta garratzean segitu. Nahi duzuen arte.

IÑAKI ITURAIN
ARALARKO ZINEGOTZIA

Igo zaitoz haize berrietara!

Galerna I

943890416 - 677149932
galerna1orio@hotmail.com

AHOLKULARITZA
Fiscalia, laborala, kontablea

Eugenio Garmendia

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

jaletxea

logelak

gazteategi

Elkano auzoa
943 13 16 06



Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

Goizeko
KAFETEGIA

943 83 28 55

Aita Lertxundi, 33 beheko ORIO
Autobus parada ondoan

Gure
Txoko
Aripaga Kalea

Orioko
Herri
Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

ITZIAR
kirolak

Tel. 943 83 31 03

Joana Murgiondo
Aseguru-agentzia

C C I
CARASS, CIVETI, LACOSTE Y CIA. SA

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

ITSASADARRA, S. L.
Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artokaria
finika administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 25 Fax 943 83 54 56 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibai Ondi 4. beheko, 20810 Orio

islada
ESTUDIO ZORROA

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Eskuraren kalera, 2. beheko Orio 20810
Tf. 943 133 856
e-maila: isladazorroa@hotmail.com

TANATORIO ZARAUZ
EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldi oroko zerbitzuak
- * Belatorio gelak
- * Koroak, eskelak, tramitazioak...

Azaba kalea, 35 Zarauz

Tel: 943 88 49 37 / Fax: 943 88 46 41
e-mail: harraspil@harraspil.net

HAIZE BERRI
etxeko-jateko-kafetegia

Plater konbinatuak,
bakarkak,
hamburguesak,
ratiok,
eguzko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!

Bizkaia kalea, 10. beheko 1. 48901 01/02. Martxo gelaren 8.00

PERTSIANAK
A K O M A Z

Aluminio, PVC
Venezianak
Motarrak...

Tel. 943 83 29 01 Muzikaria 600 70 52 27

Izarra **ERREBELATU DIGITALA**
MOMENTUAN

ESKAINTEZK
HARRITUKO
ZAITUZTETE
ETORRI!

Tien 21

Bideo Produksioa

Nahikari

HAUR DENDA

Ayuntzale Kalea, 35
20810 - Orio
Tel. 943 83 54 30
www.nahikari.es

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna eta merkea ☒

Tfnoa: 943 83 59 00

ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino
eramaten ditugu

KIKV ARRI

943 83 09 84

alta lertxundi, 36
ORIO



Parranda osteko bazkaria

Urte mordoak baditu argazki honek, dezente. San Pedro festak zirela eta, Zentralenean, Toki Alai jatetxean, primeran bazkaldu ondoren atera zuten, hain zuzen ere. Sabin Atorrasagastik —sukaldaritzako mantalarekin dago argazkian— eman zion jaten parrandan zebilen lagun koadrilari. Itxura guztien arabera, bapo

eginda atera ziren Toki Alaitik, kontentu eta alai.

Ezkerretik eskubira, goitik hasita: Xanti Atorrasagasti (mutil koskorra), Balentin Etxeberria, Juan M. Garate, Balentin, Patxi Peña, Daniel Sarasua, Juanito Gaztaña, Inaxio Paxai eta Jose Manuel Peña.

Behean, ezkerrean: Manuel Uranga, Joxe Juan Alkorta, Patxi Etxeberria Xuxana, Ramon M. Oliden,

Joakin Lertxundi Akaña eta Xabin Atorrasagasti.

Aurre-aurrean, lurrean eserita, berriz, Jose Ramon Makazaga dago, purua hortzetan duela.

ARGAZKIA: JUANA MARI
ATORRASAGASTI
INFORMAZIOA:
BALENTIN ETXEBERRIA

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

KOLON TXIKI
Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

Lizaso
dekorazioa
Eusko Gudari, 48
Tel. 943 83 07 84 Fax: 943 83 07 85

LEIHOLAN
Aholkularitza tekniko eta erakusketak

Teléfono Agencia Industrial Agencia, 5- 20740 Zestoa	Erakusketak San Francisco, 1- 20000 Zarautz	Adm. Lertxundi, 21- 20010 Orreaga Tel: 943 83 40 26
---	--	--

KRITIKA



Erakusketa ikusgarria da Okendo kultur etxekoa: emakumeak Kontxan arraunean.

JM LOPEZ

Xuntas podemos... Emakumezkoak nagusi

Kontxako estropada jokatu ostean, Donostia Kulturak argazkiak biltzeko deialdia egin zuen, lehiarekin eta sortutako giroarekin erakusketa egiteko. 1.471 argazki aurkeztu ziren eta 57 aukeratu zituzten.

Otsailaren 18an irekizen ofizialki *Donostia 08. Boga berria* izeneko erakusketa Okendo kultur etxean, Donostiako Groseko ambulatorio parean, 19:00etan, komunikabideentzako prentsaurrekoa egin ondoren. Estropada aurrera ateratzen lagundu zutenei eta bildu-

man parte hartu duten argazkilariei eskerrak eman zien aurkezpenean Ramon Etxezarretak eta horien artean dago gure J. M. Olasagasti. Argazki bilduma Kantauri aldeko beste herrietara zabaltzeko asmoa ere badago.

Erakusketa ederra da oso; indar eta plastizitate paregabeko argazkiak biltzen ditu eta. Zirrara sortzen du emakumezkoak traineruan murgilduta ikusteak itsaso zakarraren menpe, irabazleak pozez negar batean. Aurpegiak, koloreak, emozioak...

guztiak biltzen ditu.

Argazkiekin katalogo zoragarria ere argitaratu dute, 9 eurotan. Okendon bertan eta liburutegietan dago salgai. 4 atal ditu: estropada aurretiko erritualak, lehia, kaiako festa giroa eta, *xuntas podemos* izen buruarekin, galiziarren garai-pena.

Arraunzale bazara ez galdu aukera hau; zer esanik ez argazkigintza gustuko baduzu. Askok dago ikusteko eta ikasteko martxoaren 12a arte.

JOSE RAMON GARATE

IKASLEAK IDAZLE



ALVARO AZKUE |

LH-KO 6. MAILA

Inauteriak

Inauteriak pasa dira eta oso ondo igaro ditut. Askok gustatzen zaizkit mozorroak eta horregatik inauterietan gustura ibiltzen naiz. Aurten koadrilan raperoz mozorrotu gara.

Orioko Inauterietatik asko gustatzen zait mozorro lehiaketa eta egiten dituzten dantzak. Antzerkiak ere oso entretenigarriak dira eta gustura ikusten ditut.

Aurten eguraldiak lagundu digu aurreko urteetan ez bezala, eta askok alaiagoak izan dira.

Txurrunuskik antolatutako festa oso ondo egon zen, baina gu ez ginen animatu, lotsa ematen zigulako.

Datorren urtean gustatuko litzaidake proposamen hauek kontuan izatea: karroza desfilea egitea eta txaranga bat ekartzeko, giroa alaitzeko. Karrozarena ez da erraza izango, baina denbora badago ondo prestatzeko.

LURDES
ANTZAKIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Allianz

Marigre Zaldúa
aseguru agentea

Isol Ondo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-maila: zaldua.delacruz@allianz.es

ile gazteak
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

antzerkia
MIRANDA
104 M. LORRA

fatima, ate, bollo, eskalera...
hekar elen astu lanak
agingo dirikizago

Udamea bidia, 1 +659 42 32 70 - ZARAUTZ

HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Epaileak berak ere —estatuaren giltzarri behar luketenak— ikusi ditugu eskuak gurutze, hortik atera kontuak. Bada, ordea, oraindik ere huelgan ikusi ez dugun sektore bat, eta, hargatik, Emakundek gogoeta piztu nahi du emakumeak etxeko lanetako greban irudikatuz: aurten martxoak zortzia igandean egokitu izanak ez die, gainera, greba egiteko motiborik kentzen... igandeak jai izaten ez dituztenei.”

ANJEL LERTXUNDII

Idazlea
Berria
Hitz beste
2009/03/04

OSPAKIZUNA



Inauteri arrakastatsuak

Aspaldiko urteetan ez bezala, aurtengo Inauterietan, haurrez gain, hainbat guraso eta heldu ere moztortu ziren. Txikien desfilean herritar askok hartu zuen parte, eguraldi ona lagun. Sorginak, dantzariak, superheroiak, printzesak... ikusi ahal izan ziren Orioko kaleetan barrena.

Arratsalde-iluntze partean, berriz, helduenen txanda izan zen. Karroza eta guzti egin zuten desfilea, begira zeudenen barre alarga artean. Primerako giroa sortu zen herrian.

ZORIONAK!



Urola Kostako Hitzari

Bost urte handi egin zituen Urola Kostako Hitza egunkariak otsailaren 20an, Euskaldunon Egunkaria itxi zuten egunaren lehen urteurrenean. Orduraz geroztik 1.395 zenbaki, gutxienez 11.200 orri eta 20.000tik gora albiste plazatu ditu, guztiak euskara hutsean.

Gaur egun 23.000 irakurle ditu tokian tokiko informazioa jasotzen duen egunkari horrek. Euskal Herri osora zabaltzeko eta teknologia berrietara moldatzeko erronka dute eta KARKARATIK zorte ona opa diegu, datozen bost urteetan ere euskaraz lanean jardun dezaten gure ondoan.

Orioko Ogia

ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
Frontoi ondoan
Ifnoa: 943 83 01 89

SOLOZABAL
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ezk
telef: 943 83 08 12

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

feriuranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Euzko Gudari, 5

sinergia investigación fisioterapia

FISIOTERAPIA - Gaitortze Artergi eta Natalia Wierzbien
NUTRIZIONISTA - Gaitortze Artergi

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L

TXORROKAK - BALBULAK

Santiago auzoa - 18 postakutua
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
R
180 9000

Eskorako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

OROIMENAREN KUTXA



Orioko plaza, 1950. urtearen inguruan.

I. ITURAIN

Orioko plaza

Oriok duen ezaugarri nabarmenena ez da menditik errioraino jaisten den aldapan bata bestearen gainean pilatuta dauden etxeak, Oriako uretako ispiluan beren burua ikusteko lepoa luzatu nahian; ez arroka gainean harro ageri zaigun eliza; ez eskaileraz osatutako kaleak; ez Goiko Kalean arrantzaleen etxe zahar eta xumeen ondoan altxatzen diren etxe nobleetako armariak ere; nahiz horiek denak interesgarriak izan. Niretzat, Orioko gauzarik ederrena, alde handiz, hango plaza da.

Orioko plaza Gipuzkoako politenetakoa da. Aterpe batek euriaren kontra zuhurki babestua, esertzeko bankuez inguratuta, Orioko plaza izan daitekeen guztia da: plaza nagusi, azoka, topagune, atse-

dentoki, eta gainera, moila. Han lehorreko jaiak egin daitezke, baina itsas giroko ospakizunak ere bai.

Orioko plazak, horrenbeste gauza izanda ere, lasaitasun giroa ematen du: kareharrizko udaletxe xumea, ertz batean dema-harriak eta sare betetako gurdiak, mahoizko galtzez jantzitako arrantzaleak hizketan patxada ederren apaizarekin, moilan buelta emanda jarritako txalupak... Hantxe ondoan daude amarratuta kolore bizi deigarri apaindutako baporeak. Plazan korrika dabiltzan haurrek edo, arraunlari trebatuen moduan, txanela txikitari dabiltzanek, aireagotu egiten dute plazako giro lasaia.

Igande arratsetan, inguruko sagardotegietako parilletan erretzen jarritako arrai-

nen usain sarkorrarekin batera, arrantzaleen kantuak hedatzen direnean, ahots lodi eta pausatuan, Orioko plazako baretasunak goia jotzen du. Eta lasaitasun hori egunero bizitzaren gorabeheren bizitasunaren ondoren dastatzen denean, momentuaren betetasuna arimaren barru-barruraino txertatzen zaigu, modu ia mingarrian. Zenbat maite dudan Orioko plaza! Han, orduak behar bezala igarotzen dira, sarri han goian hegan pasatzen diren kaioen hegaldi patxada-sua bezalaxe.

Testua Jose Artetxe idazle azpeitiar zenarena da, erderazko 'Mi viaje diario' liburuan argitaratua, 1950ean.

IÑAKI ITURAIN

JAIOTAKOAK

- Danel Manterola Lazkano, Orion, martxoaren 1ean.
- Arhane Arrizabalaga Agirre, Orion, otsailaren 22an.
- Noa Izagirre Gomez, Orion, otsailaren 19an.

EZKONDUTAKOAK

- Ez da ezkontzarik egon.

HILDAKOAK

- Bartolome Larrarte Eguzkiza, Aian, martxoaren 2an. 90 urte.
- Maria Luisa Manterola Amas, Orion, otsailaren 26an. 78 urte.
- Juan Martin Itxaso Agirre, Orion, otsailaren 21ean. 64 urte.
- Maria Ines Ostolaza Berasategi, Orion, otsailaren 21ean. 75 urte.
- Juan Jose Aizpurua Azkue, Aian, otsailaren 20an. 67 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



tel/fax: 943 89 00 69
Etxekalea, 4 - 20.000 ZARAUZT
URBIDE
ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU ERAKUSKETA
Presioak: 1990-1995

ZAPATA KONPONKETAK
Lanegutia: 0900 - 2400 eta 2400 - 2400
Lanegutia: 0900 - 2400
Berritzaileak: Oria

Sukalde eta bainuen erreformak
XANTI MUJIK
Igeltseritza
699 46 76 21
943 13 10 37

JUAN ANTONIO URBELTZ | MUSIKOLOGOA ETA FOLKLORISTA

“Ohiturarik gabeko herria, nortasunik gabeko herria da”

Inauterietan Orion izan zen Urbeltz festa horien inguruan hitzaldia ematen Eskolak gonbidatuta. Hori aprobetxatuz, hitzordua jarri genuen Benitoren Baldorba kantaren hitzen egilearekin.

Inauteriak indarra hartzen ari dira.

Gero eta jende gehiago irteten da parrandara, baina Inauteria, berez, ez da mozo-rotzea bakarrik.

Gauzak asko aldatu dira. Euskaldun gehienak hirietan bizi gara orain eta jende labo-
raria bizi den herrietan baka-
rrik gordetzen dira benetako
Inauteriak, azpian zentzu dra-
matikoa dutelako eusten zaie.

Parrandarako gogoia al da erruduna?

Gaur egun, gazteek Inau-
teria transgresio bezala ikus-
ten dute, sistemaren aurka
agertzeko modua... eta joka-
tzeko modu zilegia da, libre
sentitzen direlako. Esaterako,
Erromako inperioaren
garaian, Inauterietan eskla-
buek eta jabeek beren rola
aldatzen zituzten hiru egunez:
esklabuak nagusi eta jabeak
morroi. Eta benetan egiten
zuten. Horregatik, gazteen sis-
temarekiko satira ulertzen dut,
ez direna azaltzen dutelako
diren moduan jokatzuz.

**Zentzu dramatikoetik satira-
ra pasa gara orduan?**

Penintsulan horren oso
adibide garbia dago: Cadize-
ko txirigota ezagunak. Azken
urtean, munduan gertatuta-
ko kontuak abesten dituzte,
beti umore ona erabiliz, nola
ez. Baina beti ez da berdin ger-
tatzten. Hemen, Donostian,
karroza soil batzuekin ateraz-
ten dira. Hori ere Inauteria
da, baina...



Urbeltz Viktoria Eugenia ondoko parkean.

KARKARA

**Gaur egun gazteek
inauteria
transgresio bat
bezala ikusten
dute. Sistemaren
aurka agertzeko
modu bat**

**Erljioaren gainbeherak ere
zerikusirik ba al du ohiturak
galtzearekin?**

Gaur egun, erlijiotasuna
falta zaigu; beraz, ohiturak
alde batera uzten ditugu. Bai-
na erlijioak nahitaez jarraitu-
ko du aurrera eta gu izango
gara ohiturarik gabe geratu-

**Ezin zaio erlijioari,
edo kanpoko
kulturen
asimilazioari
errurik bota, gu
gara ohiturak
galtzearen errudun**

ko garenak.

Errua ezin zaio erlijioari,
gizartearen aldaketari edo
kanpoko kulturen asimila-
zioari bota, gu gara ohiturak
galtzearen errudun.

Ez duzula sinisten, ez du
axolarik, ohitura ohitura da eta
galtzen dituen herria norta-

sunik gabeko herria da. Gure
ohiturak dira gure kultura,
dudarik gabe.

**Eta mitologian oinarrituriko
ohiturak?**

Hori oso konplikatu da,
sinismen horiek irudimene-
an oinarrituak baitaude. Ez
dira giza irudiak goratzen,
natura edo zomorroak bai-
zik.

**Orion bazen Xomorro txi-
kien ohitura, ostegun gize-
nez. Nola berreskura daite-
ke?**

Ekinez eta berriz ekinez.
Ohitura bat berpizteko erri-
tualizatu egin behar da.
Donostiako danborradan edo
Iruñeko sanferminetan fes-
tak erritual batekin hasten
dira, gero bakoitzak bere era-
ra bizitzeko jaia.

Orioko ohitura berpizteko
lehendabizi pixka bat ikertu
behar da, herriko zaharrenei
galdu, dokumentuetan
begiratu... ohitura horrek ere
zentzu dramatiko du eta oso
garrantzitsua da berreskura-
tzea. Ikertu ondoren, herriko
eskolen laguntzaz txikienei
erakutsi behar zaie, gero, haiek
ere berdin egin dezaten.

**Baina gaur egun ez da orain
50 urteko testuinguru bera
eta...**

Berdin da, zortzi urteko
neska-mutilek ez dute uler-
tzen eta gure kontestua.
Ezberdin elikatzen dira, ezber-
din bizi... haiek beren errea-
litatea dute.

Nik uste, gainera, haurrei
irakasteaz gain, beharrezkoa
dela herri guztiak zarata egi-
tea, batez ere gazteek. Zerbait
eskatzeko lelo bat asmatu eta
herri guztian zabaldu, alda-
rrikapen bat bailitzan. Hori
baino ohitura zahar eta poli-
tagorik ez dago.

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ														
Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:14	06:44	07:14	07:44	08:14	08:44	09:14	10:14	11:14	12:14	12:44	13:14	13:44	14:14
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20
Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:44	15:14	15:44	16:14	16:44	17:14	17:44	18:14	18:44	19:14	19:44	20:14	21:14	22:14
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20
ZARAUTZ - DONOSTIA														
Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39
Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:38
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:45
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	23:09

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN						ASTEBURUETAN					
Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia	Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30	08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00	09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30	10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00	11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30	12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10	13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30	14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
11:40	12:15	12:25		10:30	11:10	15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30	16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30	17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30	18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10	19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30	20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10	21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30	22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:30	22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30	OHARRA: lanegunetan koadro argidus orduetako autobusak Urbieltik pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, gutxiak pasatzen dira. Koadro funetako orduak larunbatetako (laneguna) zerbitzuari bakarrik dagozkie.					
17:40	18:15	18:25		16:30	17:30						
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30	Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuari buruzko informazioa lortzeko zentzu bide daude:					
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30						
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30	www.landabus.com TEL 943 24 01 34 sma-e 5280 zurbakira					
19:40	20:15	20:25		19:30	20:30						
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30						
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30						
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00						

ITSASOA

Martxoa	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
06	12:33 eta	05:53 eta 18:28	
07	01:03 eta 13:51	07:23 eta 19:45	
08	02:11 eta 14:47	08:26 eta 20:40	
09	03:03 eta 15:32	09:16 eta 21:26	
10	03:48 eta 16:14	09:58 eta 22:08	
11	04:29 eta 16:50	10:37 eta 22:47	☾
12	05:07 eta 17:25	11:13 eta 23:24	
13	05:43 eta 17:58	11:48 eta	
14	06:17 eta 18:31	00:01 eta 12:23	
15	06:51 eta 19:05	00:38 eta 12:57	
16	07:25 eta 19:42	01:16 eta 13:33	
17	08:03 eta 20:26	01:57 eta 14:13	
18	08:53 eta 21:30	02:46 eta 15:07	☾
19	10:15 eta 23:01	03:55 eta 16:30	
20	12:10 eta	05:31 eta 18:13	

ZAINTZAKO BOTIKAK

MARTXOA ■ 6an, Lasa. ■ 7an eta 8an, Zulaika. ■ 9an, Mutiozabal. ■ 10ean, Etxeberria. ■ 11n, G. Artiñano. ■ 12an, Azaldegi. ■ 13an, Zulaika. ■ 14an eta 15ean, Iriarte. ■ 16an, Mutiozabal. ■ 17an, G. Artiñano. ■ 18an Zulaika. ■ 19an, Azaldegi. ■ 20an, Iriarte. ■ 21ean eta 22an, Larrañaga ■ 23an, G. Artiñano.	Azaldegi: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz Barrenetxea: Gipuzkoa kalea,17. 943 83 23 98 Zarautz Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz Olaizola: S. Frantzisko kalea, 16. 943 13 38 14 Zarautz Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio Uranga: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea 943 13 29 83 Zarautz Zulaika: Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz
--	---

KINTOKO AFARIAK

■ Apirilaren 4an, Balea hotelean, 1956an eta 1957an jaiotakoen kinto afaria.

Izena ematea: Loretxu eta Arkaitz tabernetan, martxoaren 21a baino lehen.

■ Martxoaren 28an, Satxota sagardotegian, 1969. urtean jaiotakoen bazkaria. Izena ematea: Arkaitz eta Gure Txoko tabernetan, martxoaren 23a arte.

PODOLOGOA

■ Aian, martxoaren 14an. Ordua hartzeko udaletxean eman behar da izena. Tf: 943 13 11 44.

SILLO BOLAK

■ Aian, martxoaren 10ean. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera deitu: 943 81 65 00; edo bertako Igorrekin hitz egin: 660 04 97 51.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, martxoaren 11n altzari zaharrak jasoko dituzte. Bezperan utzi behar dira eta udaletxean nolakoak diren jakinarazi.

BINGOA

■ Orion, asteazkenero, Zaharren Babes Lekuak antolatuta. 16:30etik 18:30era, kultur etxeko areto nagusian.

**Korrikako argazkiak**

Arkupe merkatarien elkarteak aurreko urteetako Korrikako argazkiak biltzeko deialdia egin die herritarrei. Izan ere, apirilaren 2an izango den euskararen aldeko lasterketa aitzakia hartuta apainduko dituzte dendariak erakusleihoak. Argazki horiekin erakusketa egingo da gero. Kultur etxean jasoko dira fotoak, martxoaren 18a arte.

MENDI IBILALDIAK

■ Martxoaren 22an, Talai Mendi elkarteak antolatuta, Larhuna mendi ibilaldia. Irteera: 07:00etan autobus geltokian.
■ Izena ematea: Uranga burdindegian, martxoaren 21a baino lehen.

Beharrezkoa da federatuta egotea.

BATZAR NAGUSIA

■ Martxoaren 13an, Orioko Arraun Elkarteko ohiko batzar nagusia. Gaiak: azken batzarreko akta onartzea; 2008ko denboraldiko arraun

emaitzak; elkartearen egoera ekonomikoa; 2009ko aurrekontua; eskariak eta galderak. 19:00etan, Orioko kultur etxean.

ERROMERIA

■ Aian, martxoaren 8an, erromeria Laja eta Mikel trikitilariekin. Plazaratu berri duten *Non zuzarra, han adarra* diskoko abestiak ere joko dituzte. 18:30etik 21:30era, Andatzako Aristerrazuko plazan.

MUSIKA

■ Zarautzen, martxoaren 9an, *Can't Explain* taldearen kontzertua. Norvegiako *Hombre malo* taldearekin joko du. 21:30ean, Putzuzulo gaztetxean.

ERAKUSKETA

■ Martxoaren 6tik 31ra, Ramon Aranzabalen margoen erakusketa. Goizez eta arratsalde, Orioko kultur etxean.

TXOTXONGILOAK

■ Martxoaren 12an, *Printze txikia*. 60 bat minutu irango duen txotxongilo emanaldia izango da Txotxongilo taldea osatzen duten Enkarni Genuarekin eta Manolo Gomezekin, Kutxaren babesarekin. 18:00etan, Orioko kultur etxean.

AZOKA**Iragarkietarako txokoa**

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, doako zerbitzua da-eta gurea.

SALGAI

■ Mercedes Class E autoa salgai. 2003. urtekoa, 89.000 km eta ondo zaindutakoa. Tf: 647 10 16 46.
■ Hiru ateko Peugeot 206 autoa salgai. 10 urtekoa,

144.000 km. Gasolina. Egoera onean dago. Prezioa: 2.800 euro. Tf: 615 73 69 11.
■ Taxi lizentzia salgai, Orion. Tf: 669 89 10 20.

GALDUTAKOAK

■ Graduatutako betaurrekoak galdu nituen otsailaren 6an, Salatxo paretik Gelato bitartean. Monturarik ez dute eta hondoa beltza. Askok eskertuko nuke aurkitzen dituenak 943 83 31 70 telefonora deituko balit.
■ Perla handi bat duen zilar koloreko belarritakoa aurkitu nuen Gabonetan, *casasbaratas*-eko aterpean.

Jabeak 670 890 305 zenbakira dei dezala.

ALOKAIRUA

■ Pertsona arduratsua behar da Orion pisua konpartitzeko. Tf: 659 73 40 01 (Ainara).

LAN BILA

■ Etxeko lanak egiteko edo haurrak eta zaharrak zaintzeko neska eskaintzen da. Berehala hasteko. Tf: 630 40 66 45.
■ Goiz eta arratsalde, edozer lanetan aritzeko neska eskaintzen da. Berehala hasteko. Tf: 663 58 10 02 (Claudia).

LAN ESKAINTZA

■ Mutil euskaldun bat behar da baserrian lan egiteko. Interesatuak dei dezatela, mesedez, 943 83 27 44 zenbakira.

BESTELAKOAK

■ AC/DC taldeak martxoaren 31n Bartzelonan emango duen kontzertua ikusteko autobusa antolatu du Lasarteko Obelix tabernak. 50 euro balioko du bidaiak eta 55 lagunentzako tokia dago. Interesatuak bus_acdc@hotmail.com helbidera idatzi beharko dute.

eskerrik asko

www.amafor.net



ezkerreko **alternatiba** abertzalea



aralar

Eki-lorea

belardenda

- KOSMETIKA NATURALA
- ERREMEDIU NATURALAK
- PISU KONTROLA
- NATURISTAREN KONTSULTA
- ELIKADURA EKOLOGIKO eta MAKROBIOTIKOA
- ZELIAKO, DIABETIKO eta

KIROLARIENTZAKO ELIKADURA

**PROMOZIO
BEREZIAK**

erregina
jelea

soja
lezitina

pisu
kontsulta

pisua galtzeko
produktuetan
promozio bereziak